Trintxerpeko azken bulegora (1 km) joan beharra dute. Kontuan izan behar da bertatik bertarako harremana eskatzen duten bezero gehienak adinekoak direla, hain zuzen ere, mugitzeko arazo handienak dituzten pertsonak. Gainera, tramiteak internet bidez egiteko zaitasunak dituzte, ez dutelako eskuragarri edota ez dutelako gaitasun askirik.

Auzotarrak kexu agertu dira itxiera honengatik, eta 1.202 sinadura bildu dituzte itxiera salatzeko. Sinadura horiek Kutxabank erakundeari eraman dizkiote.

Kutxa Fundazioak Kutxabankeko % 32ren jabetza du, eta Donostiako Udal partaide da Fundazioan, Kutxaren sortzailea da eta.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

**MOZIO ARRUNTA**

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Kutxabank bankuari eutsi diezaiola irekita Bidebietako bulegoari, orain arteko eguneroko ordutegi eta aukerekin, edo, hori ezinezkoa balitz, astean egun batzuetan irekita.

Donostian, 2020ko abenduaren 1ean

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldearen bozeramalea”

Eztabaidea hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta M.<sup>a</sup> Jesus Idoeta Madariaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Larratxo (1,4 km) o a la última oficina de Trintxerpe (1 km). Hay que tener en cuenta que la mayoría de la clientela que solicita una atención directa desde allí mismo son de edad avanzada, concretamente personas con mayores dificultades de movilidad. Además, tienen dificultades para realizar los trámites por Internet, sea porque no tienen acceso sea porque no tienen capacidad suficiente.

Los vecinos y vecinas se quejan de este cierre y han recogido 1.202 firmas para denunciarlo. Estas firmas se las han entregado a Kutxabank..

La Fundación Kutxa es propietaria de un 32 % de Kutxabank y, a su vez, el Ayuntamiento de San Sebastián es miembro de dicha fundación, al ser uno de los fundadores de Kutxa.

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

**MOCIÓN ORDINARIA**

El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al banco Kutxabank a mantener abierta la oficina de Bidebieta, con los horarios y las prestaciones que venía ofreciendo habitualmente hasta ahora, o, si ello no fuera posible, abrirla unos días a la semana.

En San Sebastián, a 1 de diciembre de 2020

Reyes Carrere Zabala,  
portavoz del grupo municipal EH Bildu.”

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.<sup>a</sup> Marta Huarte Paño, D. Jorge Mota Iglesias, D.<sup>a</sup> Marisol Garmendia Beloqui y D.<sup>a</sup> M<sup>a</sup> Jesús Idoeta Madariaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**ONARTUA.**

**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**APROBADA.**

**UNANIMIDAD.**

**13. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa.**

“EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa.

**JUSTIFIKAZIOA**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema “arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa”, “titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz” osatua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estratégikoaren Ebaluazioa egiteko prozesuak argitara eman du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak jasan duen pribatizazio-politika bizia. Egoera hori askotan salatu bada ere, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estratégikoaren Ebaluazioak agerian utzi du honen dimentsioa. 2011. eta 2018. urteen artean, foru-aldundiek,

**13. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la defensa del Sistema Vasco de Servicios Sociales como red pública de atención organizada.**

“Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal EH Bildu, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentó la siguiente MOCIÓN ORDINARIA relativa a la defensa del Sistema Vasco de Servicios Sociales como red una pública de atención organizada.

**JUSTIFICACIÓN**

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales establece que el Sistema Vasco de Servicios Sociales “constituye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública” integrado “por prestaciones, servicios y equipamientos de titularidad pública y de titularidad privada concertada”.

El proceso de elaboración de la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV ha sacado a la luz la intensa política privatizadora a la que ha sido sometido el Sistema Vasco de Servicios Sociales. Si bien han sido muchas las ocasiones en las que se ha denunciado esta situación, la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV ha puesto en evidencia la dimensión de la

adinekoentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan plaza berriak irekitzeari utzi zioten —eta, kasu batzuetan, sare publikoko plazen kopurua murriztu egin zen—, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara arreta eta zaintza eske hurbiltzen ziren herritarrei ‘txeke-zerbitzuak’ ematen hasi ziren. Hala, 2011n EAEko administrazioek 1.753 ‘txeke-zerbitzu’ ematen zituzten, baina 7 urte geroago, 2018an, kopuru hori 2,5 aldiz handitu zen, 4.489 ‘txeke-zerbitzu’ izateraino.

Donostiako datuak ikusten baditugu, honako hau da Gizarte Ekintzako saileko memorietan jasotzen den eboluzioa:

Urtea	Emandako Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak (ZLPE)
2014	99
2015	94
2016	131
2017	148
2018	228
2019	192

Gogoan izan behar dugu, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren arabera 2016tik aurrera ZLPEn bidez ordaindutako zerbitzuak plaza bihurtu behar zirela jasotzen zuela.

Gauzak horrela, zerbitzu publiko batek izan dezakeen pribatizazio-modurik muturrekoenak hartu duen dimensioa erabaki politiko batean oinarritzen da: Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa ‘zerbitzu-txeke’ gisa instrumentalizatzea. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak

misma. Entre 2011 y 2018, las diputaciones forales, especialmente, las de Araba y Bizkaia, dejaron de abrir nuevas plazas en residencias y centros de día para personas mayores —e incluso en algunos casos se redujo el número de plazas de la red pública—, para comenzar a dar ‘cheques-servicio’ a la ciudadanía que se acercaba al Sistema Vasco de Servicios Sociales en demanda de atención y cuidado. Así, si en 2011 eran 1.753 los ‘cheques-servicio’ que daban las administraciones vascas, solo 7 años más tarde, en 2018, esa cifra se había multiplicado por 2,5, hasta los 4.489 ‘cheques-servicio’.

Si observamos los datos de San Sebastián, la evolución que se recoge en las memorias de la Dirección de Acción Social es la siguiente:

Año	Prestaciones económicas vinculadas al servicio prestado
2014	99
2015	94
2016	131
2017	148
2018	228
2019	192

Debemos recordar que según el Plan Estratégico de Servicios Sociales, a partir de 2016 los servicios abonados mediante las prestaciones económicas vinculadas al servicio prestado debían convertirse en plazas.

Así las cosas, la dimensión que ha tomado la forma más extrema de privatización que puede sufrir un servicio público encuentra su causa en una decisión política: la instrumentalización de la prestación económica vinculada al servicio como ‘cheque-servicio’. Una prestación creada, en el marco de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención

zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen esparruan sortutako prestazioa, helburu argi batekin: "Arreta eta zaintzarako zerbitzu publiko edo itundu bat eskuraztea ezinezkoa denean soilik". Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, ordea, EAEn adinekoen arreta pribatizatzeko erabili da, arreta-sare publikoaren estaldura murritzten zen bitartean.

Aurreko guztia EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa egiteko prozesuan azaleratu da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko ibilbide-orri bat ezartzen zuen adostasun politiko zabal baten emaitza izan zen plan hori, eta horren baitan honako hau erabaki zen: "2011n Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak esleitutako plazak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman txertatutako zerbitzuetako plaza (plaza arrunt) bihurtu beharko" dira. Aldiz, zazpi urtetan, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako plazen % 6,4 izatetik % 13,5 izatera pasatu dira. Jakitera eman den I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio dokumentuak arrazoizkotzat aurkeztu nahi du inguruabar hori. Gainera, pribatizazio-politika horren zilegitasuna aitorzeaz gain, kontsideratzen du 'zerbitzu-txekeak' kudeaketa-eredu bat gehiago direla —kudeaketa zuzenaren edo kontzertazioaren parekoa—, eta balioa ematen dio administrazioek "plaza" gehiago irekitzeko duten gaitasunari, inbertsio nabarmen txikiagoarekin. Are gehiago: ebaluazioak politika pribatizataile hau beste sektore batzuetara zabaltzearen alde egiten du, hala nola bazterkeriaren edo desgaitasuna duten pertsonen arretara.

Aukera honek lotura estua du adinekoen arretan eta zaintzan irabaziak lortzea zilegi dela ulertzen duen ikuspegiarekin. 'Negozio' horretara 210 milioi euro baino gehiago

a las personas en situación de dependencia, con una finalidad clara: "únicamente cuando no sea posible el acceso a un servicio público o concertado de atención y cuidado". En cambio, la prestación económica vinculada al servicio se ha utilizado para privatizar la atención de las personas mayores en la CAPV, mientras se reducía la cobertura de la red pública de atención.

Todo lo anterior ha aflorado en el proceso de elaboración de la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV. Un Plan fruto de un amplio consenso político que establecía una hoja de ruta para el despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales y en el que se acordó que "las plazas asignadas por la Prestación Económica Vinculada al Servicio en 2011 debieran tender a convertirse en plazas en servicios integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales". En cambio, en solo 7 años, las Prestaciones económicas vinculadas al servicio han pasado de ser el 6,4 % de las plazas del Sistema Vasco de Servicios Sociales a representar el 13,5 %. Una circunstancia que el documento de Evaluación del I Plan Estratégico dado a conocer trata de presentar como razonable. Además, además de reconocer la licitud de dicha política de privatización, considera que los "cheques-servicio" son un modelo más de gestión —equiparable a la gestión directa o la concertación— y pone en valor la capacidad que tienen para conseguir que las administraciones abran más "plazas" con una inversión sensiblemente menor. Aunque no se detiene ahí: la Evaluación apuesta por extender esta política privatizadora a otros sectores como la atención a la exclusión o las personas con discapacidad.

Esta opción está íntimamente relacionada con una visión que entiende lícito el lucro en la atención y el cuidado de las personas mayores. Un "negocio" al que las administraciones han

bideratu dituzte administrazioek 2011 eta 2019 bitartean.

Pribatizazioaren aldeko gestioak ondorio garrantzitsuagoak ditu zaintzaileek eta zainduek eguneroakoan dituzten beharretan, eta, zoritzarrez, ezagunak dira: zaintzaren kalitatea murriztu egiten da; oso lan-prekarietate handia dakar berekin; erabat diluitzen da zaintzaren erantzukizun publikoa izatearen ideia oro; eta ekitaterik eza sortzen du arreta eta zaintza eskuratzean.

Covid-19ren pandemiak agerian utzi du egitura kolektiboak behar direla bizitza eta zaintzak konpontzeko. Lizuna da, hain zuzen ere, orain sakondu nahi izatea arreta eta zaintza beharrak merkantilizatzeko mekanismoetan.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera publikoa aldatzeak eztabaida soziala eskatzen du, eta erakundeok gure jarrera azaldu behar dugu. Horregatik guztiagatik, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

**MOZIOA ARRUNTA**

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Donostiako arreta-sare publiko antolatua eta erantzukizun publikokoa bultzatzea.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema pribatizazio-politikak legitimatzeko, bultzatzeko eta hedatzeko ahalegin oro arbuiatzea.

destinado más de 210 millones de euros entre 2011 y 2019.

La gestión a favor de la privatización tiene graves consecuencias en las necesidades del día a día de quienes cuidan y son cuidadas son, y, por desgracia, resultan conocidas: se reduce la calidad en los cuidados; lleva aparejada una altísima precariedad laboral; se diluye por completo cualquier idea de responsabilidad pública en los cuidados; y genera inequidad en el acceso a la atención y el cuidado.

La pandemia de la COVID-19 ha dejado en evidencia la necesidad de contar con estructuras colectivas para resolver la vida y los cuidados. Es obsceno que precisamente sea ahora cuando se pretenda profundizar en los mecanismos de mercantilización de las necesidades de atención y cuidado.

Alterar la naturaleza pública del Sistema Vasco de Servicios Sociales requiere un debate social en el que las diferentes instituciones debemos mostrar nuestra posición. Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente:

**MOCIÓN ORDINARIA**

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa a impulsar la red pública articulada de atención, de responsabilidad pública, del Sistema Vasco de Servicios Sociales en San Sebastián .

2. El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa a rechazar cualquier intento de legitimar, impulsar y extender las políticas de privatización en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, arreta eta zaintzarako eskubide subjektiboko egoera batean, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren funtzioa mugatu dezatela, soilik, aldi baterako prestazio edo zerbitzu bat eskuratzera bermatu ezin den egoeretara, baldin eta prestazio edo zerbitzu hori administrazio publikoak garatzen ari badira.

Donostian, 2020ko abenduaren 1ean

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldearen bozeramalea”

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que, en un escenario de derecho subjetivo a la atención y al cuidado, la función de la prestación económica vinculada al servicio se limite a aquellas situaciones en las que no puede garantizarse temporalmente el acceso a una prestación o servicio y cuya provisión se encuentre en curso de desarrollo por parte de las administraciones públicas.

En San Sebastián, a 1 de diciembre de 2020

Reyes Carrere Zabala,  
EH Bildu udal taldearen bozeramalea”

Eztabaidea hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Eguneroakoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.<sup>a</sup> Olaia Duarte López, D. Jorge Mota Iglesias, D.<sup>a</sup> Aitzole Araneta Zinkunegi y D.<sup>a</sup> Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 13. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.<sup>º</sup> 1 AL ASUNTO N.<sup>º</sup> 13 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**BAZERTUA.**

**GEHIENGOA.**

**ALDEKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**RECHAZADA.**

**MAYORÍA.**

**VOTOS A FAVOR: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 13. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.<sup>º</sup> 2 AL ASUNTO N.<sup>º</sup> 13 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 13. GAIARI AURKEZTUTAKO 3. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 3 AL ASUNTO N.º 13 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0.

**EAJ/PNV ETA PSE-EE TALDEEK 13. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 13 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ/PNV Y PSE-EE:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.

ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

APROBADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.

ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

**13. GAIAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE, (3) PP.

AURKAKO BOTOAK: 0.

ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3)

ELKARREKIN DONOSTIA.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

APROBADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 18 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE, (3) PP.

VOTOS EN CONTRA: 0.

ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3)

ELKARREKIN DONOSTIA.

**13. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

AURKAKO BOTOAK: 0.

ABSTENTZIOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP,

(3) ELKARREKIN DONOSTIA.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

APROBADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

VOTOS EN CONTRA: 0.

ABSTENCIONES: 12 – (6) EH BILDU, (3)

PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

**13. GAIAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DEL ASUNTO N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

AURKAKO BOTOAK: 0.

ABSTENTZIOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP,

(3) ELKARREKIN DONOSTIA.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

APROBADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE.

VOTOS EN CONTRA: 0.

ABSTENCIONES: 12 – (6) EH BILDU, (3)

PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Udalbatzak, bi mila eta hogeiko abenduaren hamazazpian egindako ohiko bilkuran, honako

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día diecisiete de

mozio arrunt hau onartu zuen, EH BILD taldeak aurkeztua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzkoa. Mozio horrek EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek aurkezturiko zuzenketa transakzionatu bat jasotzen du, xedapen-zatiaren lehenengo, bigarren eta hirugarren puntuak ordezteko, eta testua behin betikoa da.

*"Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema "arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikoko", "titularitasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz" osatua.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioa egiteko prozesuak argitara eman du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak jasan duen pribatizazio-politika bizia. Egoera hori askotan salatu bada ere, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioak agerian utzi du honen dimentsioa. 2011. eta 2018. urteen artean, foru-aldundiek, adinekoentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan plaza berriak irekitzeari utzi zioten —eta, kasu batzuetan, sare publikoko plazen kopurua murriztu egin zen —, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara arreta eta zaintza eske hurbiltzen ziren herritarrei 'txeke-zerbitzuak' ematen hasi ziren. Hala, 2011n EAEko administrazioek 1.753 'txeke-zerbitzu' ematen zituzten, baina 7 urte geroago, 2018an, kopuru hori 2,5 aldiz handitu zen, 4.489 'txeke-zerbitzu' izateraino.*

diciembre de dos mil veinte, aprobó la siguiente Moción Ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la defensa del Sistema Vasco de Servicios Sociales como una red pública articulada de atención, que incorpora una enmienda transaccionada presentada por los Grupos EAJ/PNV y PSE-EE, de sustitución de los puntos primero, segundo y tercero de la parte dispositiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*"La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales establece que el Sistema Vasco de Servicios Sociales "constituye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública" integrado "por prestaciones, servicios y equipamientos de titularidad pública y de titularidad privada concertada".*

*El proceso de elaboración de la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV ha sacado a la luz la intensa política privatizadora a la que ha sido sometido el Sistema Vasco de Servicios Sociales. Si bien han sido muchas las ocasiones en las que se ha denunciado esta situación, la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV ha puesto en evidencia la dimensión de la misma. Entre 2011 y 2018, las diputaciones forales, especialmente, las de Araba y Bizkaia, dejaron de abrir nuevas plazas en residencias y centros de día para personas mayores —e incluso en algunos casos se redujo el número de plazas de la red pública —, para comenzar a dar 'cheques-servicio' a la ciudadanía que se acercaba al Sistema Vasco de Servicios Sociales en demanda de atención y cuidado. Así, si en 2011 eran 1.753 los 'cheques-servicio' que daban las administraciones vascas, solo 7 años más tarde, en 2018, esa cifra se había multiplicado por 2,5, hasta los 4.489 'cheques-servicio'.*

*Donostiako datuak ikusten baditugu, honako hau da Gizarte Ekintzako saileko memorietan jasotzen den eboluzioa:*

Urtea	Eemandako Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak (ZLPE)
2014	99
2015	94
2016	131
2017	148
2018	228
2019	192

*Gogoan izan behar dugu, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren arabera 2016tik aurrera ZLPEn bidez ordaindutako zerbitzuak plaza bihurtu behar zirela jasotzen zuela.*

*Gauzak horrela, zerbitzu publiko batek izan dezakeen pribatizazio-modurik muturrekoenak hartu duen dimentsioa erabaki politiko batean oinarritzen da: Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa ‘zerbitzu-txeke’ gisa instrumentalizaztea. Autonomía personala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden personak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen esparruan sortutako prestazioa, helburu argi batekin: “Arreta eta zaintzarako zerbitzu publiko edo itundu bat eskuratzea ezinezkoa denean soilik”. Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, ordea, EAEn adinekoen arreta pribatizatzeko erabili da, arreta-sare publikoaren estaldura murrizten zen bitartean.*

*Aurreko guztia EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa egiteko prozesuan azaleratu da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko ibilbide-orri bat ezartzen zuen adostasun politiko zabal baten emaitza izan zen plan hori, eta horren baitan honako hau erabaki*

*Si observamos los datos de San Sebastián, la evolución que se recoge en las memorias de la Dirección de Acción Social es la siguiente:*

Año	Prestaciones económicas vinculadas al servicio prestado
2014	99
2015	94
2016	131
2017	148
2018	228
2019	192

*Debemos recordar que según el Plan Estratégico de Servicios Sociales, a partir de 2016 los servicios abonados mediante las prestaciones económicas vinculadas al servicio prestado debían convertirse en plazas.*

*Así las cosas, la dimensión que ha tomado la forma más extrema de privatización que puede sufrir un servicio público encuentra su causa en una decisión política: la instrumentalización de la prestación económica vinculada al servicio como ‘cheque-servicio’. Una prestación creada, en el marco de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, con una finalidad clara: “únicamente cuando no sea posible el acceso a un servicio público o concertado de atención y cuidado”. En cambio, la prestación económica vinculada al servicio se ha utilizado para privatizar la atención de las personas mayores en la CAPV, mientras se reducía la cobertura de la red pública de atención.*

*Todo lo anterior ha aflorado en el proceso de elaboración de la Evaluación del I Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV. Un Plan fruto de un amplio consenso político que establecía una hoja de ruta para el despliegue del Sistema Vasco de Servicios*

zen: “2011n Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak esleitutako plazak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman txertatutako zerbitzuetako plaza (plaza arrunt) bihurtu beharko” dira. Aldiz, zazpi urtetan, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako plazen % 6,4 izatetik % 13,5 izatera pasatu dira. Jakitera eman den I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio dokumentuak arrazoizkotzat aurkeztu nahi du inguruabar hori. Gainera, pribatizazio-politika horren zilegitasuna aitortzeaz gain, konsideratzen du ‘zerbitzu-txekeak’ kudeaketa-eredu bat gehiago direla —kudeaketa zuzenaren edo kontzertazioaren parekoa—, eta balioa ematen dio administrazioek “plaza” gehiago irekitzeko duten gaitasunari, inbertsio nabarmen txikiagoarekin. Are gehiago: ebaluazioak politika pribatizatzale hau beste sektore batzuetara zabaltzearen alde egiten du, hala nola bazterkeriaren edo desgaitasuna duten pertsonen arretara.

Aukera honek lotura estua du adinekoen arretan eta zaintzan irabaziak lortzea zilegi dela ulertzen duen ikuspegiarekin. ‘Negozio’ horretara 210 milioi euro baino gehiago bideratu dituzte administrazioek 2011 eta 2019 bitartean.

Pribatizazioaren aldeko gestioak ondorio garrantzitsuagoak ditu zaintzaileek eta zainduek egunerokoan dituzten beharretan, eta, zoritzarrez, ezagunak dira: zaintzaren kalitatea murriztu egiten da; oso lan-prekarietate handia dakar berekin; erabat diluitzen da zaintzaren erantzukizun publikoa izatearen ideia oro; eta ekitaterik eza sortzen du arreta eta zaintza eskuratzean.

Covid-19ren pandemiak agerian utzi du egitura kolektiboak behar direla bizitza eta zaintzak konpontzeko. Lizuna da, hain zuzen ere, orain sakondu nahi izatea arreta eta zaintza beharrak merkantilizatzeko mekanismoetan.

Sociales y en el que se acordó que “las plazas asignadas por la Prestación Económica Vinculada al Servicio en 2011 debieran tender a convertirse en plazas en servicios integrados en el Sistema Vasco de Servicios Sociales”. En cambio, en solo 7 años, las Prestaciones económicas vinculadas al servicio han pasado de ser el 6,4 % de las plazas del Sistema Vasco de Servicios Sociales a representar el 13,5 %. Una circunstancia que el documento de Evaluación del I Plan Estratégico dado a conocer trata de presentar como razonable. Además, además de reconocer la licitud de dicha política de privatización, considera que los “cheques-servicio” son un modelo más de gestión —equiparable a la gestión directa o la concertación— y pone en valor la capacidad que tienen para conseguir que las administraciones abran más “plazas” con una inversión sensiblemente menor. Aunque no se detiene ahí: la Evaluación apuesta por extender esta política privatizadora a otros sectores como la atención a la exclusión o las personas con discapacidad.

Esta opción está íntimamente relacionada con una visión que entiende lícito el lucro en la atención y el cuidado de las personas mayores. Un “negocio” al que las administraciones han destinado más de 210 millones de euros entre 2011 y 2019.

La gestión a favor de la privatización tiene graves consecuencias en las necesidades del día a día de quienes cuidan y son cuidadas son, y, por desgracia, resultan conocidas: se reduce la calidad en los cuidados; lleva aparejada una altísima precariedad laboral; se diluye por completo cualquier idea de responsabilidad pública en los cuidados; y genera inequidad en el acceso a la atención y el cuidado.

La pandemia de la COVID-19 ha dejado en evidencia la necesidad de contar con estructuras colectivas para resolver la vida y los cuidados. Es obsceno que precisamente sea ahora cuando se pretenda profundizar en los mecanismos de mercantilización de las necesidades de atención y cuidado.

*Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera publikoa aldatzeak eztabaidea soziala eskatzen du, eta erakundeok gure jarrera azaldu behar dugu. Horregatik guztiagatik, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:*

**MOZIOA ARRUNTA**

1. “*Donostiako Udalatzak berretsi egiten du Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeko 5. artikuluak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaz ematen duen definizioa: arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikoko, eta titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz osatua dago.*”
2. “*Donostiako Udalatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari lanean jarraitzeko egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatze aldera*”.
3. “*Donostiako Udalatzak hertsatuki eskatzen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren garapenean diharduten erakunde guztiei (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalerriak) lanean jarrai dezatela 185/2015 Dekretua betetzeko eta bertan definitzen diren zerbitzuak, baliabideak eta prestazioak osatzeko*”.=====

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zibilatutu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeiko abenduaren hogeita zortzian.

ALKATEAK O. E. /  
V.º B.º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso.

*Alterar la naturaleza pública del Sistema Vasco de Servicios Sociales requiere un debate social en el que las diferentes instituciones debemos mostrar nuestra posición. Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente:*

**MOCIÓN ORDINARIA**

1. “*El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se ratifica en la definición que del Sistema Vasco de Servicios Sociales (SVSS) realiza el artículo 5 de la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, como una red pública articulada de atención de responsabilidad pública e integrada por prestaciones, servicios y equipamientos de titularidad pública y de titularidad privada concertada*”.
2. “*El Pleno del ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a seguir trabajando en el desarrollo actual del Sistema vasco de Servicios Sociales*”.
3. “*El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a todas las instituciones implicadas en el desarrollo del Sistema Vasco de Servicios Sociales (Gobierno vasco, Diputaciones y Municipios) a seguir trabajando para dar cumplimiento al Decreto 185/2015 y completar los servicios, recursos y prestaciones que se definen en el mismo*”.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a veintiocho de diciembre de dos mil veinte.

**14. Mozio arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Donostiako egoitzen inguruan segurtasun espazioak sortzeari buruz.**

**14. Moción ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la habilitación de espacios seguros en el entorno de las residencias de Donostia.**

Aitzole Araneta Zinkunegi andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.<sup>a</sup> Aitzole Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**KENDUA.**

**RETIRADA.**

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Irunberen etorkizunari buruzkoa.**

“Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisas naizen honeek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluaren babesean, KONTROL MOZIO hau aurkeztu dut, Ogasun Batzordean Irunberen etorkizunaz eta orubea saltzeko eragiketa ekonomikoki kitatzeko beharraz egindako interpelazioaren ondorioz.”.

**II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre el futuro de Irunbe.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación plasmada en la Comisión de Hacienda, sobre el futuro de Irunbe y la necesidad de saldar económicaamente la operación de venta del solar.”.

**JUSTIFIKAZIOA**

Krisi pandemikoa, Miramoenen teknologia,

**JUSTIFICACIÓN**

La crisis pandémica, la eclosión de empresas

ikerketa eta ezagutza enpresen eklosioa, erabilerarik gabeko eremu estrategiko bat berreskuratzeko aukera, eraikin multzoaren salerosketa operazioa ekonomikoki kitatzeko beharra eta beste hainbat faktore dira udal Gobernua une honetan eskura dituen bitarteko guztiak jartzera behartu beharko luketenak, Illunben bere anbizio guztia erabili eta hamarkada bat baino gehiago irauten duen egoera bat desblokeatzeko.

Illunbeko eraikin multzoaren gainbeheraren historia luzeegia da, eta 2000. urtearen hasieran han aritzen ziren zinema eta aisiarako lokalen ixtetik dator. 20 urte igaro ondoren, merkataritza gunea egun erabat utzita dago. Larrain SL eta Loiola Gestión Inmobiliaria SL enpresei esleitu zien udal Gobernuak Illunbe multzoaren salmenta, 2016ko abenduaren 7an. 2017ko otsailean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen, gehienez, urtebeteko luzapena ematea, salerosketa eskritura formalizatzeko. Esleitu zenetik hiru urte baino gehiago igaro ondoren, Illunbeko merkataritza gunearren proiekta bertan behera utzi zuten, proiektu horrek gunea ustiatu eta berreskuratzeko beste fase berri bat iragartzen zuen arren. Ekonomikoki bideraezina zen, Garbera handitzearen ondorioz, proiektauan parte hartzeari uko egin zioten enpresek alde egin ondoren.

Kontratistek hasieran Illunbe gunerako aurrekuskaitako erabilerak garatzea ezinezkoa zela adierazi zutenez, Donostiako Udalak kontratistekin elkarrizketak hasi zituen, hasieran aurrekuskaitako merkataritza gunearren ordez hotel bat, klinika bat eta supermerkatu bat jartzeko.

Puntu honetara iritsita, Udalak oraindik ezin du berreskuratu Illunbe gunearren salmenta eragiketaren zenbatekoa (17 bat milioi euro).

tecnológicas, de investigación y conocimiento en Miramón, la posibilidad de recuperar una zona estratégica sin uso, la necesidad de saldar económicamente la operación de compra-venta del complejo son solo algunos de los múltiples factores que deberían obligar al Gobierno Municipal a poner en estos momentos todos los medios a su alcance para desplegar en Illunbe toda su ambición y desbloquear una situación que se remonta más allá de una década.

La historia del declive del Complejo de Illunbe es demasiado larga y se remonta al cierre de los cines y locales de ocio que allí operaban a principios de 2000. Transcurridos 20 años, la situación actual del complejo comercial es de total abandono. El gobierno municipal adjudicó el 7 de diciembre de 2016 la venta del complejo Illunbe a las empresas Larrain S.L. y Loiola Gestión Inmobiliaria S.L. En febrero de 2017, la Junta de Gobierno Local aprobó conceder una ampliación máxima de un año para formalizar la escritura de compra-venta. Transcurridos más de tres años desde la adjudicación, el proyecto de centro comercial en Illunbe, que auguraba una nueva fase de explotación y recuperación del complejo, fue abandonado. Era inviable económicamente tras la estampida de firmas que, ante la ampliación de Garbera, declinaron su implicación en el proyecto.

Ante la imposibilidad manifestada por los contratistas de desarrollar los usos inicialmente previstos en el complejo Illunbe, se aireó que el Ayuntamiento de la ciudad inició conversaciones con los contratistas para cambiar el centro comercial inicialmente previsto por un hotel, una clínica y un supermercado.

Llegados a este punto, el Ayuntamiento sigue sin poder recuperar el importe por la operación de venta del complejo Illunbe, calculado en unos 17

Horiek horrela, hauxe da Talde Popularrak Udalbatzari azterkizun aurkezturiko

**KONTROL MOZIOA**

1. Donostiako Udalbatzak Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Larrain SL eta Loiola Gestión Inmobiliaria SL empresa sustatzaleekin negozia dezala alde guztientzako irtenbide onuragarri bat, Illunbeko guneari eragiten dion egungo paralisi egoera askatzeko, eta, hala, administrazioak orubearen salmentan jasaten duen milioika euroko pasiboa berreskuratzeko.

2. Donostiako Udalbatzak Gobernuari hertsatuki eskatzen dio bi hilabeteko epean aurkez ditzala Illunbeko gune honetarako 2016. urtean aurreikusi ez zituzten beste erabilera batzuk.

3. Donostiako Udalbatzak Gobernuari hertsatuki eskatzen dio galdezko Miramongo Parke Teknologikoan dauden enpresen artean zein premia osagarri izango liratekeen onuragarriak Illunbeko gune berritan kokatzeko, gune horri guztiari balio erantsia eman eta sinergia interesgarriak sortzeko.

Donostian, 2020ko abenduaren 10ean

Borja Corominas Fisas,  
Udal Talde Popularraren bozeramailea"

millones de Euros.

Por todo lo expuesto, el Grupo Popular presenta al Pleno la siguiente:

**MOCIÓN DE CONTROL**

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al gobierno a negociar con las empresas promotoras, Larrain S.L. y Loiola Gestión Inmobiliaria S.L, una salida beneficiosa para todas las partes que desbloquee el estado de parálisis actual que afecta al complejo de Illunbe y recuperar así el pasivo de millones de euros que soporta la administración en su operación de venta del solar.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al gobierno a presentar en el plazo de dos meses alternativas de uso diferentes a las previstas en 2016 para este espacio en Illunbe.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al gobierno a sondar entre las empresas instaladas en el Parque Tecnológico de Miramón qué necesidades complementarias les resultarían beneficiosas ubicar en el renovado complejo de Illunbe, dotando de valor añadido a todo este espacio y creando sinergias de interés.

San Sebastián, a 10 de diciembre de 2020

Borja Corominas Fisas  
Portavoz del Grupo Municipal Popular

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/a D. Mikel Lezama Zubeldia, D.<sup>a</sup> Marta Huarte Paño, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUAREN EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**1. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.<sup>º</sup> 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.<sup>º</sup> 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 21 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE. (3) PP, (3) ELKARREKIN  
DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.

ABSTENTZIOAK: 0.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

APROBADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 21 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE. (3) PP, (3) ELKARREKIN  
DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 6 – EH BILDU.

ABSTENCIONES: 0.

**1. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.<sup>º</sup> 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.<sup>º</sup> 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 21 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE. (3) PP, (3) ELKARREKIN  
DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 0.

ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

APROBADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 21 – (10) EAJ/PNV, (5)

PSE-EE. (3) PP, (3) ELKARREKIN  
DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 0.

ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

**1. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.<sup>º</sup> 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.<sup>º</sup> 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

ONARTUA.

AHO BATEZ.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

APROBADO.

UNANIMIDAD.

**II.2.2. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, krisi pandemikoaren ondorioz zerbitzuen ustiapena kudeatzeko kanona % 50 gutxiago kobratzea dela eta.**

“Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisas naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluaren babesean, KONTROL MOZIO hau aurkeztu dut, Ogasun Batzordean azterturiko interpelazioaren ondorioz, krisi pandemikoaren ondorioz zerbitzuen ustiapena kudeatzeko kanona % 50 gutxiago kobratzea dela eta.”

**JUSTIFIKAZIOA**

COVID-19aren krisiak, ondorio ekarri dituen era guztietako muga eta guzti, negozio gehienetan diru sarrerak murritzutu ditu. Bistan da inork ezin izan zituela, 2020ko martxora arte, pandemiaren ondorio izugarriak aurreikusi, eta, beraz, noizbait ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko administrazio lizitazioren bat lortu zutenek ez zitzutzen inoiz aurreikusi ondorio egoera horrek ekar ziezazkieken kalte ekonomiko handiak.

Kontua da ustiapen zerbitzuen emakidadun batzuek urte batzuk lehenago Administrazioarekin kanon bat ezarrita parte hartu zuten udako azken aldia igaro ondoren, Udalak joan den urrian bidali zuela 2007ko azaroan —kontratua esleitzeko lizitazioren data— finkatutako zenbatekoa, urteko 34.562 eurokoa, kobratzera, gertatutako guzia eta

**II.2.2. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre rebajar al 50% el cobro del canon por la concesión de la gestión de explotación de servicios debido a la crisis pandémica.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación plasmada en la Comisión de Hacienda, para rebajar al 50% el cobro del canon por la concesión de la gestión de explotación de servicios debido a la crisis pandémica.”

**JUSTIFICACIÓN**

La crisis derivada del covid19, con sus consiguientes limitaciones de todo tipo, ha provocado una merma en los ingresos de una inmensa mayoría de negocios. Resulta obvio que nadie, hasta marzo de 2020, pudo contemplar las enormes consecuencias de la pandemia y, por tanto, que quienes optaron en su día a la licitación administrativa para la explotación de servicios de Hostelería, nunca previeron los enormes perjuicios económicos que esta situación sobrevenida pudiera ocasionarles.

El caso es que, transcurrido el último periodo estival por el que algunos concesionarios de servicios de explotación concurrieron años atrás fijando un canon con la Administración, el Ayuntamiento giró el pasado mes de octubre el cobro del importe fijado en noviembre de 2017- momento en el que se presenta a la licitación para la adjudicación del contrato-, con el mismo

begiz jotako fakturazioa lortzeko ezintasuna kontuan hartu gabe, eragindako enpresek etorkizunean irautea kolokan jarrita.

Era horretako zerbitzuen ustiaketa kudeatzeko administrazio kontratu berezia arautzeako administrazio klausula partikularren agiriak “Kontratua gauzatzeak eragindako kalte-galerak” zehazten ditu VIII. 9. tituluan adierazitakoaren arabera, kalte eta galera horiek Administrazioaren agindu baten ondorio zuzen eta berehalako baten ondorio direnean, Administrazioa izango da erantzulea, legeetan ezarritako mugen barruan.

Administrazioak berak ezarri zituen maiatzean Donostiako hondartzetara sartzeko mugak, bai kopuruari dagokionez, bai egonaldiari dagokionez, eta horrek zuzen eragin zuen, zalantzarik gabe, kontratua sinatu zenean, 2007ko azaroan, aurreikusitako fakturazio zenbatekoan.

Horiek horrela, hauxe da Talde Popularrak Udalbatzari azterkizun aurkezturiko

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio % 50 murritz dezala Donostiako hondartzetako zerbitzu ustiapena kudeaketagatik 2020rako xedaturiko kanonaren zenbatekoa.

Donostian, 2020ko abenduaren 10ean

Borja Corominas Fisas,  
Udal Talde Popularraren bozeramailea".

importe de 34.562 € anuales, sin tener en cuenta todo lo ocurrido, la imposibilidad de cumplir con la facturación prevista y agravando la sostenibilidad futura de las empresas afectadas.

El pliego de cláusulas administrativas particulares a regir en la contratación administrativa especial para la gestión de explotación de servicios de este tipo, específica en su Título VIII, 9, relativo a “Daños y perjuicios derivados de la ejecución del contrato”, que “cuando tales daños y perjuicios hayan sido ocasionados como consecuencia inmediata y directa de una orden de la Administración, será ésta responsable dentro de los límites señalados en las Leyes”.

Fue la administración la que estableció en el mes de mayo las limitaciones de acceso a las playas donostiarras, tanto en número como en horas de estancia, hecho que indudablemente repercutió de forma directa en el volumen de facturación previsto en noviembre de 2017, cuando se firmó el contrato.

Por todo lo expuesto, el Grupo Popular presenta al Pleno la siguiente:

#### MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a reducir en un 50% el cobro del canon previsto para 2020 por la concesión de la gestión de explotación de los servicios en las playas de Donostia-San Sebastián.

San Sebastián, a 10 de diciembre de 2020

Borja Corominas Fisas  
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Eztabaidea hasita, Borja Coromina Fisas jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/a D. Borja Corominas Fisas, D.<sup>a</sup> Haizea Garay Gallastegui, D. Ricardo Burutaran Ferré y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**BAZTERTUA.**

**GEHIENGOA.**

**ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3)**

**ELKARREKIN DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)**

**PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**RECHAZADA.**

**MAYORÍA.**

**VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3)**

**ELKARREKIN DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)**

**PSE-EE.**

**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

3. eta 7. kontrol mozioak elkarrekin eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control n.<sup>o</sup> 3 y n.<sup>o</sup> 7.

**II.2.3. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, Donostiako merkatari txikien babesari buruzkoa.**

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztzen du, Donostiako saltoki txikiak babesteari buruz, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

**II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre el apoyo al pequeño comercio de San Sebastián.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpellación plasmada en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre el apoyo al pequeño comercio de San Sebastián

**JUSTIFIKAZIOA**

Merkataritza txikiaren negocio eredu gain behera doa; krisi pandemikoak mota guztiak

**JUSTIFICACIÓN**

